

## **2024ko kirol urteko egitarauak eta kirol ekintza jarduera bereziak antolatzeko dirulaguntzak programak arautzeko oinarri espezifikoak.**

### **1.Xedea.**

Oinarri hauen helburua irabazi asmorik gabeko kirol-taldeen eta klubek diru-laguntzak zuzenean eskatzeko duten aukera eta laguntzen kontzesioa arautzea da, maiz zein noizean behin elkartzen diren kirol-jarduera bereziak (kirol-ikuskizunak, klub urteurrenak...) antolatzeko diru-laguntzak eskatzeko aukera eta diru-laguntza horien kontzesioa arautzea da; betiere jarduera horiek Urretxu / Zumarraga udalerrian antolatzen baldin badira haien egiturak indartzeko eta garatzeko, eta Urretxuko Udaleko Sustapen Soziokultural Sailarekin bat datozen helburuak dituzten jarduerak egin ditzaten, eta kirol arloan gizonezkoen eta emakumeen arteko desberdintasuna betikotuko ez dutenak.

### **2. Onuradunak.**

Dirua irabazteko asmorik gabeko kiroleko klub, erakunde eta elkarteek eskatu ahal izango dituzte oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzak. Horretarako hainbat baldintza bete beharko dituzte, hala nola hurrenak:

- a) Egoitza soziala Urretxun, edo Zumarragan izatea, udalerrri bietan euren jardunaren espezialitatea eremuan garatzen badute.
- b) Era berean, onuradun izatea eskatu ahal izango dute eskualdeko izaeraz euren jardunaren espezialitatea Legazpi, Urretxu, Zumarraga, eta Ezkio-Itsasoko eremuan garatzen duten erakunde eta elkarteek.

Deialdi honetatik kanpo geldituko dira:

- a) Genero edo/eta sexualitate arrazoiengatik diskriminatzen duten proiektuak edo berdintasunaren oinarriak errespetatzen ez dituztenak.
- b) Emakumeen eta gizonezkoen arteko aukera berdintasuneko printzipioaren aurkako helburuak, sarbide sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduketa, antolamendua edo estatutuak dituzten pertsona fisiko edo

## **Bases específicas de concesión de subvenciones para realización de programas anuales deportivos y organización de actividades deportivas especiales para 2024.**

### **1. Objeto.**

Es objeto de las presentes bases la regulación del acceso y concesión de ayudas económicas directas a clubes y agrupaciones deportivas sin ánimo de lucro, así como a otras asociaciones, personas y grupos que se reúnan habitual u ocasionalmente sin ánimo de lucro en concepto de organización de actividades deportivas de carácter especial (actos deportivos, aniversarios de clubes,..) que se celebren en el término municipal de Urretxu / Zumarraga para el desarrollo y consolidación de sus estructuras y realización de actividades, que por su proyección e interés, coincidan con los objetivos del Área de Promoción Sociocultural del Ayuntamiento de Urretxu y que no perpetúen la desigualdad entre hombres y mujeres en el ámbito deportivo.

### **2. Beneficiarios.**

Podrán solicitar las subvenciones que se regulan en las presentes Bases, los Clubes, Entidades y Asociaciones Deportivas sin ánimo de lucro, que cumplan los siguientes requisitos:

- a) Tener la Sede Social, radicada en Urretxu, o en Zumarraga si desarrollan su especialidad en el ámbito de los dos municipios.
- b) Igualmente podrán solicitar ser beneficiarios aquellas entidades, asociaciones y clubes que con carácter comarcal desarrollen su especialidad en el ámbito de Legazpia, Urretxu, Zumarraga, y Ezkio-Itsaso.

Quedarán excluidas de la presente convocatoria:

- a) Aquellos proyectos que discriminen por motivos de género y/o sexualidad o que no respeten los principios de igualdad.
- b) Las personas físicas o jurídicas cuyos fines u objetivos, sistema de admisión o acceso, funcionamiento, trayectoria, actuación, organización o estatutos sean contrarios al principio de igualdad de oportunidades entre

juridikoak

- c) Sexu arrazoiengatik bazterkerian erori izanagatik zigor administratiboa edo penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak, eta Emakumeen eta Gizonezkoen berdintasunari buruzko 4/2005 Legearen arabera debeku horrekin zigortuta daudenak.
- d) Emakumeen eta Gizonezkoen Berdintasunerako 4/2005 Legean, edo emakumeen eta gizonezkoen benetako berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako obligazioak betetzen ez dituzten entitate edo enpresak.
- e) Sexu arrazoiengatik sarbide prozesuan edo funtzionamen-duan bazterketa egiten duten elkarteak.

### 3. Eskaerak eta aurkezteko epeak.

Ordezkeriak edo pertsona arduradunak egin beharko du eskaera, Udalak prestatutako eskaera eredu ofiziala erabiliko du (I ERNSKINA) horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik 30 egun naturaleko epea izango du.

### 4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak eta informazioak

Eskaerarekin batera, eskatzaileak honako dokumentazioa aurkeztu beharko du:

1.- 2024rako diru-laguntzak emateko Oinarri Orokorreko 8 artikuluan xedatutako dokumentazio orokorra, jarraian zehazten dena:

- a) Eskaera egiten duenaren **nortasun** juridikoa egiaztatzeko dokumentuak, beti ere lehenengo aldiz eskatzen bada:

Pertsona juridikoek: entitate eraketa jasotzen duen eskritura edo dokumentua eta estatutoak, Elkarte Erregistroan edo dagokion erregistroan behar den moduan inskribatuta.

Sozietate zibilak edo ondasun-komunitateak: eraketa kontratua, IFZ eta sozietate zibila edo ondasun-komunitatea osatzen duten pertsona guztien NANA edo baliokidea.

mujeres y hombres.

- c) Las personas físicas o jurídicas sancionadas administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo ni las sancionadas con esta prohibición en virtud de la Ley 4/2005 para la igualdad de Mujeres y Hombres.
- d) Las entidades o empresas que incumplan las obligaciones establecidas en la Ley 4/2005 para la Igualdad de Mujeres y Hombres, o en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.
- e) Las asociaciones que en su proceso de admisión o en su funcionamiento discriminen por razón de sexo.

### 3. Solicitudes y plazo de presentación.

Las solicitudes deberán formalizarse por parte del representante ó persona responsable, en el modelo de instancia oficial elaborado por el Ayuntamiento (ANEXO I) en el plazo de 30 días naturales a partir del día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

### 4. Documentos e informaciones que deben acompañarse a la solicitud

Junto con la solicitud, la entidad solicitante deberá presentar la siguiente documentación:

1.- La documentación general exigida en el artículo 8 de las Bases generales para el otorgamiento de subvenciones para el año 2024, que se detalla a continuación:

- a) Documentos acreditativos de la **personalidad** del/la solicitante, en el caso de que solicite por primera vez:

Personas jurídicas: escritura o documento en que conste la constitución de la entidad y los estatutos, debidamente inscritos en el Registro de Asociaciones o en el que corresponda.

Sociedades civiles y comunidades de bienes: contrato de constitución, NIF y DNI de todas las personas que constituyan la sociedad civil o la comunidad de bienes.

b) Legezko **ordezkaritzaren** kasuan, legezko ordezkariaren NANA edo horren balio bereko dokumentua eta ordezkaritzaren egiaztapena agiri bidez. Egiaztapen hori notario-ahalordez, eskritura bidez., edo Urretxuko Udalaren ordezkaritza eredu..).

c) Eskatzailearen **banku-kontuaren titulartasuna** frogatzen duen agiria, eskatzailearen nortasunarekin bat etorriko dena (agiri hauetako edozeinek balioko du horretarako: bankuko kontu-laburpena, libreta edo bankuak egindako egiaztagiria.

d) **Zinpeko aitortpena**, dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzarekin zigortuta ez dagoela edo horretarako gaitasunik ez duela esanez legezko debekuan sartuta ez dagoela azalduko duena. Debeku horietan barne izango da sexuagakiko diskriminazioaren ondorioz jasotako debekua, beti ere, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen seigarren Azken Xedapenean jasotakoari jarraiki jasandako debekuak.

2.- Jarraian adierazten den dokumentazio espezifikoak:

a) Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren fotokopia

b) Diruz lagundu nahi diren jardueren memoria

c) Gastuen eta sarreraren aurrekontua

d) Zinpeko aitortpena, bestelako diru-sarrerak (kuotak, material salmentak, fakturazioak, beste erakunde batzuen diru- laguntzak eta abar) zehaztuz eta/edo beste sail, erakunde eta abarretan egindako diru- laguntza eskariaren berri emanez.

e) Euskararen jarraipen fitxa (II ERANSKINA)

f) Berdintasunaren jarraipen fitxa (III ERANSKINA)

g) Dagokion bankuak, aurrezki--kutzak edo aseguru-agen--tziak igorritako agiria, eskaera egin duen entitatearen izenean eran--tzu--kizun zibileko

b) Para acreditar la **representación** legal: DNI o equivalente de la persona representante y acreditación documental de esa representación: poderes notariales, escrituras, o documento de representación de acuerdo al modelo facilitado por el Ayuntamiento de Urretxu...).

c) Documento justificativo de **la titularidad de la cuenta bancaria** del/la solicitante que tiene que coincidir con la identidad de la persona solicitante (extracto bancario, libreta, certificado emitido por la entidad bancaria...)

d) **Declaración jurada** de no estar sancionada penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni de hallarse incurso en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.

2.- La documentación específica siguiente:

a) Fotocopia del Número de Identificación Fiscal

b) Memoria de las actividades a subvencionar

c) Presupuesto de gastos e ingresos

d) Declaración jurada en la que se especifiquen otros ingresos (cuotas, ventas de material, facturaciones, subvenciones de otras entidades, etc.) y/o se informe de la solicitud de subvención realizada en otros departamentos, organismos, etc.

e) Ficha de seguimiento del euskera (ANEXO II)

f) Ficha de seguimiento de la igualdad (ANEXO III)

g) Documento expedido por la agencia de seguros o banco o caja de ahorros correspondientes que certifique la tenencia de seguro de responsabilidad

asegurua egin dagoela ziurta-tzeko, antola-tzen dituen jarduerak estali -ditzan.

h) Zuzendaritza Batzordearen eraketa fitxa.

Horreaz gain, honakoak aurkeztu beharko dira ere:  
Kirol urteko egitarauak direnean:

- Jardueraren azalpen-memoria.
- Federatutako/kirol eskolen kirolarien zenbakidun zerrenda; haien adina, sexua, eta bizilekua adierazi beharko dira. Dagokion federazioak kirolari horien zerrenda eman eta hori ere gehitu beharko da. Aipatutako zerrenda horiek sexuaren arabera banatuta aurkeztuko dira.
- Teknikarien zenbakidun zerrenda, federazioan indarrean dagoen lizentzia dutenena; haien titulazioa, sexua eta bizilekua adierazi beharko dira. Klubeko entrenatzaile atxiki gisa agertzen den federazioko lizentzia eta tituluaren fotokopia ere gehitu beharko dira. Aipatutako zerrenda horiek sexuaren arabera banatuta aurkeztuko dira.
- Lehian dauden equipo/kirolarien kopurua
- Eskola-kiroleko jarduerak egiteko garapen eta antolaketan laguntzea, eta kasu guztietan bat etorri beharko dira eskola-kirolaren inguruan indarrean dagoen araudiarekin.
- Udalerrian errotuta daudelako interes bereziko modalitateetako kirol-eskolak
- Kirolak edo interes bereziko taldeak sustatzea
- Jardueraren aurrekontu ekonomikoa izan beharko ditu :
  - \* *Denboraldiko gastuen aurreikuspena.*
  - \* *Denboraldiko diru-sarreraren aurreikuspena.*

Kirol jarduera bereziak antolaketa denean:

- Antolatutako kirol/ jolas jarduerak:
  - \*Diru-laguntza eskatzen duen programaren programa zehatza (datak, tokia, aurrekontua, parte-hartzaileak...).

2024rako diru-laguntzak emateko Oinarri Orokorreko 8 artikulua xedatzen duen arabera, Urretxuko Udalak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu deialdi honetan ematen dituen diru-laguntzak eskuratzeko, datuen bitartekotzako plataformatik eta beste administrazio batzuetatik

civil a nombre de la entidad solicitante, que cubra las actividades que organiza.

h) Ficha composición Junta Directiva.

Además, se deberá presentar:

En el caso de los programas anuales deportivos

- Memoria explicativa de la actividad.
- Listado de deportistas federados/escuelas deportivas indicando edad, categoría, sexo y lugar de residencia. Se deberá adjuntar listado de los mismos expedido por la Federación correspondiente. Dichos listados deberán ser presentados desagregados por sexo.
- Listado numerado de técnicas y técnicos con licencia federativa en vigor, indicando titulación y lugar de residencia. Se deberá adjuntar la fotocopia del título y de la licencia federativa en la que conste como entrenador adscrito al club. Dichos listados deberán ser presentados desagregados por sexo.
- Número de equipos/deportistas en competición
- Colaboración en el desarrollo y organización de actividades de Deporte Escolar, en todos los casos deberán ser acordes con la normativa existente sobre el Deporte Escolar.
- Escuelas deportivas de modalidades de interés especial por su arraigo en el municipio
- Deportes o equipos de interés especial
- Presupuesto económico de la actividad que incluirá:
  - \* *Previsión de gastos de la temporada en curso.*
  - \* *Previsión de ingresos de la temporada en curso.*

En el caso de la organización de actividades deportivas especiales

- Actividades deportivas/recreativas organizadas:
  - \* Programa detallado de cada actividad para la que se solicita subvención (fechas, lugar, presupuesto, participantes...).

Tal y como establece el artículo 8 de las Bases generales para el otorgamiento de subvenciones para el año 2024, el Ayuntamiento de Urretxu va a verificar los siguientes requisitos para acceder a las subvenciones que otorgue en esta convocatoria, desde la plataforma de intermediación de datos y

(NISAE), zehazki:

- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria.
- Foru Ogasunetikiko zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria.

Interesdunak horiek erabiltzearen aurka egiten badu, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Urretxuko Udalak ofizioz egiaztatuko du Udalarekiko betebeharrak betetzen direla

Eskaeran agertzen diren datuak, ez badira behar bezala egiaztatzen, ez dituzte aintzat hartuko eskaera baloratzekoan.

#### **5. Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria aurkeztea.**

Eskaerak edo horrekin batera doan dokumentazioak ez badituzte identifikazio datuak biltzen, akatsen bat badute edo zerbait falta bazaie, eskatzaileari eskatuko zaio, urriaren 1eko 39/2015 Legeak 68 artikuluan ezarritakoari jarraiki, hamar eguneko epean akats horiek zuzentzeko; eta adieraziko zaio, hori egingo ez balu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, aipatu legearen 42.1 artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

Urretxuko Udalak eskaera ebaluatu eta erabakia hartzeko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio eta informazio osagarri oro eskatu ahal izango dio eskatzaileari.

#### **6. Tramitazioaren ardura duen administrazioko unitatea.**

Sustapen Soziokulturaleko Sailak tramitatuko ditu eskariak.

otras administraciones, NISAE, en concreto:

- Certificado de estar al corriente de sus obligaciones frente a la Seguridad Social.
- Certificado de estar al corriente de sus obligaciones tributarias frente a las Haciendas Forales.

Cuando la persona interesada se oponga al uso de los mismos deberá aportar los datos o documentos correspondientes.

Las certificaciones de estar al corriente con el Ayuntamiento de Urretxu se realizará de oficio.

Los datos alegados en la solicitud y que no sean debidamente justificados no se tendrán en cuenta en la valoración de la solicitud.

#### **5. Subsanación y documentación complementaria.**

Si la solicitud o la documentación que debe acompañarla no reunieran los datos de identificación, adolecieran de algún error o fueran incompletas, se requerirá a la entidad solicitante, de acuerdo con lo establecido en el artículo 68 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, para que, en el plazo de diez días, subsane los defectos detectados, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, en los términos previstos en el artículo 42.1 de ese mismo texto legal.

El Ayuntamiento de Urretxu podrá requerir a las entidades solicitantes cuanta documentación e información complementaria considere necesarias para la adecuada evaluación y resolución de la solicitud presentada.

#### **6. Unidad administrativa encargada de la tramitación.**

Las solicitudes serán tramitadas por el Departamento de Promoción Sociocultural.

## 7. Bete beharreko baldintzak

Diru-laguntza jasotzeko, baldintza hauek bete behar dira:

a) Euskararen erabilera eta kalitatea bermatuko dira.

b) Diruz lagundutako jarduera guztien publizitatean (kartelak, plaka oroigarriak, material inprimatua, ...) Urretxuko Udalaren logoa (armarria) azaldu beharko da, eta Udalak oniritzia eman beharko dio publizitate testuari kaleratu aurretik.

c) Horrez gain, jarduera edo ekintza horrek Udalaren diru-laguntza duela adierazi beharko da.

d) Genero ikuspegia txertatzea edo emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea. Parekidetasun erreala gauzatzea.

## 8. Eskaerak baloratzeko irizpideak.

a) Diruz laguntzeko gastutzat joko dira diruz lagundutako ekintzaren edo proiektuaren izaerari erantzuteaz gain, diru-laguntzak arautzeko oinarriek ezarritako epean egin direnak.

b) Honako gastu hauek ez dira diruz lagunduko:  
- Fakturatzat edo legezko baliodun agiritzat hartu ezin diren gastuen agiriak eta bestelako dokumentuak.

- Banakako kirolen kasuan, kirol-materialaren kostua edota entrenamendu eta norgehiagoketarako tresneria, normalean, norberarenak eta norberak erabiltzekoak izaten direlako.

- Bazkari, afari edo ostalaritzako bestelako kostuak, diruz lagundutako ekintzan parte hartu duten pertsonen sortutakoak izan ezik; halakoetan, egindako gastuaren eta lortu nahi den helburuaren arteko proportzionaltasuna gorde beharko da.

c) Alderdi hauek ere kontutan hartuko dira:

- **Euskararen sustapenaren aldeko jarrera.**

\* *Ahozko ezagutza/ erabilerari dagokionez*

- *Aurkezpen eta ekitaldi publikoak: euskara hutsean*

## 7. Requisitos a cumplir

Para acceder a la subvención es necesario cumplir los siguientes requisitos:

a) Garantizar el uso y la calidad del euskera.

b) En la publicidad de todas las actividades subvencionadas (carteles, placas conmemorativas, material impreso, etc.) deberá figurar el logo (escudo) del Ayuntamiento de Urretxu, que deberá dar el visto bueno al texto publicitario antes de su lanzamiento.

c) Asimismo, deberá indicarse que dicha actividad o acción está subvencionada por el Ayuntamiento.

d) Incorporar la perspectiva de género o promover la igualdad de mujeres y hombres. Realización de la paridad real.

## 8. Criterios de valoración de solicitudes.

a) Se consideran gastos subvencionables aquellos que, además de responder a la naturaleza de actividad o proyecto objeto de subvención, se realicen en el plazo establecido por las diferentes bases reguladoras de las subvenciones.

b). No se admitirán como gastos subvencionables:  
- Notas de gastos u otros documentos que no reúnan los requisitos reglamentariamente exigibles para ser considerados facturas o justificantes con validez legal.

- No se valorará, sobre todo en los deportes individuales, el costo del material deportivo o elementos de entrenamiento y competición, que generalmente son de uso y propiedad particular.

- Costes de comidas, cenas u otros propios de servicios de hostelería, salvo los originados con relación a los propios participantes de la actividad subvencionada, que deberán guardar, en todo caso, la oportuna proporcionalidad entre el gasto realizado y el objetivo perseguido.

c) También se considerarán los siguientes aspectos:

- **Actitud favorable de fomento del uso del euskera.**

\* *Respecto al conocimiento/uso oral*

- *Presentación y actos públicos: deberá realizarse en*



Urretxuko udala

edo elebitan egin beharko dira. Bi hizkuntzak erabili behar izanez gero, euskarari emango zaio lehentasuna.

- Baloratu egingo da 18 urtetik beherako haur eta gazteekin lan egiten duten begiraleak/entrenatzaileak euskal hiztunak izatea.
- Baloratu egingo da saioak (entseguak, entrenamenduak...) euskaraz egitea.

*\* Idatzizko erabilerari dagokionez*

-Mezu idatziei (kartel, iragarki, esku- programa, liburuxka) dagokienez, euskaraz edo elebitan (euskaraz eta gaztelaniaz) idatziko dira. Beti eduki bertsuak izan ohi dituztenak euskara hutsez, eta elebitan egiten direnen kasuan, euskarari emango zaio lehentasuna, bai kokalekuaren aldetik (euskarazkoa erdarazkoaren gainean) eta bai neurriaren aldetik ere.

-Baloratu egingo da txostena euskaraz aurkeztea

-Baloratu egingo da elkarteak edo egitasmo konkretuek hizkuntza-irizpideak idatziz jasota izatea.

- **Genero berdintasunaren sustapenaren aldeko jarrera.**

- Emakumeen parte hartze eta lidergoa bultzatzen dutenak.

- Indarkeria matxistari aurre hartzeko ekimenak bultzatzen dituztenak.

-Genero eta sexualitate eredu estereotipatuak kuestionatzen dituztenak.

-Elkartearen Zuzendaritza Batzordearen %50a gutxienez emakumeak izatea.

Baloratzeko irizpideak eta puntuazioak agiri honen amaieran V. Eranskin gisa jasotako taulan azaltzen dira.

Jasotako eta egiaztatutako dokumentazioa taula horretan aplikatu, eta ateratzen diren puntuak kontabilizatuko dira.

Atal honetako diru-laguntzak guztira izango duten zenbatekoa hartu eta onartutako eskaera guztiei emandako puntuekin zatitu beharko da puntuaren balorea zein izango den zehazteko.

## 9. Aurrekontua.

Deialdi honetan zehazten diren dirulaguntzak 108.000,00 eurokoa da eta dagokion aurrekontuko diru-ataletik emango dira.

Aplikatzen ez diren kopuruak geroagoko beste erabaki batzuetara igaro ahal izango dira.



euskera ó bilingüe. Si se utilizan las dos lenguas, deberá darse prioridad al euskera.

- Se valorará que monitores/entrenadores que trabajan con niños/as y jóvenes menores de 18 años tengan capacidad para comunicarse en euskera.

- Se valorará la realización de ensayos, entrenamientos... en euskera.

*\* Respecto al uso escrito*

- En lo referente a información escrita (carteles, anuncios, programas, cuadernillos), se realizará en euskera ó bilingüe (euskera y castellano). Los contenidos habituales se escribirán sólo en euskera, y en el caso de ser bilingüe, se dará prioridad al euskera, tanto en la colocación del texto (en euskara encima del castellano) y también en cuanto al tamaño de la letra.

-Se valorará la presentación de la memoria en euskera.

-Se valorará que las asociaciones o las actividades concretas recojan por escrito los criterios lingüísticos.

- **Actitud favorable de fomento de la igualdad de género.**

- Aquellas que fomenten la participación y el liderazgo de la mujer.

- Aquellas que fomenten acciones de prevención de la violencia machista.

- Aquellas que cuestionen modelos estereotipados de género y sexualidad.

- Que un mínimo del 50% de la Junta Directiva sean mujeres.

Los criterios y puntuación para la valoración se hallan descritos en la tabla añadida al final del documento como Anexo V.

Al ejecutar la tabla reseñada con la documentación suministrada y contrastada, se contabilizarán los puntos resultantes.

El valor del punto será el resultado de dividir el importe total de la partida establecida para este apartado entre los puntos asignados al conjunto de las solicitudes admitidas.

## 9. Presupuesto

El importe de las subvenciones convocadas a través de estas bases específicas asciende a la cantidad de 108.000,00 euros y será financiado con cargo a la partida presupuestaria correspondiente.

Los importes no aplicados se podrán trasladar a

Aurrekontuko zenbatekoa ez bada iristen dirulaguntzarako eskubidea duten eskari guztiak estaltzeko, aurrekontuan jasotako kopurua proportzioan banatuko da urtean aurkeztutako eskari guztien artean, hain zuzen kontusaila agortzen den arte.

Kopuru hori handitu ahal izango da, Udal Aurrekontuaren Exekuzio Oinarrietan aurreikusitakoarekin bat betiere.

### 10. Ordaintzeko eta justifikatzeko modua eta epeak.

Diru-laguntzak bi zatitan ordainduko dira:

a) Erabakiaren jakinarazpenarekin batera %80 ordainduko da.

b) Beste %20a ordainduko da, honako dokumentazioa aurkeztu ondoren:

1-Udalaren justifikazio ofizialaren plantilla behar bezela beteta ( IV ERANSKINA), non honakoa jasoko duen:

- diruz lagundutako behin betiko urteko jardueraren eta/edo jardura berezi bakoitzaren diruz lagundutako memoria laburra
- gastu-sarreraren balantzea, urteko jardueraren eta/edo jardura berezi bakoitzaren diruz lagundutako.

2-Gastu eta ordainketa justifikagiriak.

3-Jardura burutu denaren dokumentazio grafikoa kartelak, liburuxkak, prentsa oharrak....

4-Nahi izanez gero, baliogarri izan daiteken beste edozein dokumentazio.

Justifikazioaren dokumentazioa 2025eko urtarrilaren 31 baino lehenago aurkeztu beharko da.

Urretxuko Udalak egiaztatuko ditu, dirulaguntzak emateko ebazpenetan erabakitako bitartekoen bidez, egoki deritzen eta dirulaguntza behar bezala erabili dela zentzuz agerian uzten duten frogagiriak. Horretarako, onuradunari eskatu diezaiotke hautatutako gastu frogagiriak bidaltzeko.

posteriores resoluciones.

Si la dotación presupuestaria no alcanzara a cubrir el total de solicitudes con derecho a subvención, se procederá al reparto proporcional del dinero presupuestado entre todas las solicitudes presentadas en el año, hasta agotar la partida.

Dicha cantidad podrá ser objeto de ampliación, de conformidad con lo previsto en las Bases de Ejecución de Presupuesto Municipal.

### 10. Forma y plazos de pago y justificación.

Las subvenciones se harán efectivas en dos plazos:

a) En el momento de la concesión se abonará el 80% de la cantidad concedida.

b) El segundo pago, 20% restante se realizará previa presentación de la siguiente documentación:

1-Modelo de justificación oficial elaborado por el ayuntamiento (ANEXO IV) que incluirá:

- breve memoria final del programa anual subvencionado y/o de cada actividad especial subvencionada.
- balance general de gastos e ingresos del programa anual subvencionado y/o de cada actividad especial subvencionada.

2-Justificantes de gasto y justificantes de pago .

3-Dossier con la documentación gráfica que acredite la realización de las actividades programadas (carteles, folletos, recortes de prensa, etc.)

4-Opcionalmente, cualquier otra documentación adicional que se considere necesaria.

Esta documentación justificativa se presentará antes del 31 de enero de 2025.

El Ayuntamiento de Urretxu comprobará, a través de los medios que se acuerden en las resoluciones de concesión de las subvenciones, los justificantes que estime oportunos y que permitan obtener evidencia razonable sobre la adecuada aplicación de la subvención, a cuyo fin podrá requerir a la entidad beneficiaria la remisión de los justificantes de gasto seleccionados.



V Eranskina/Anexo V

**KIROL DIRU-LAGUNTZAK: Urteko programak eta jarduera bereziak**  
**SUBVENCIONES DEPORTES: Programas anuales y actividades especiales**

<b>KIROL KLUBAK ETA BESTEAK/ Clubes deportivos y otros</b>		
<b>Irizpideak /Criterios</b>	<b>Aldagaiak / Variables</b>	<b>Puntuak</b>
<b>Lehiako federazio lizentzia/GKP(Gazte Kirol Plana)</b> <i>Licencia federativa /PDJ (Plan Deporte Juvenil)</i>		1,2
<b>Emakumeen Lehiako federazio lizentzia /GKP</b> <i>Licencia femenina federativa/PDJ</i>		1,5
<b>Lehiako federativa plan berezia lizentzia</b> <i>Licencia federativa plan especial</i>		3
<b>Aisialdiko federazio lizentzia</b> <i>Licencia federativa recreativa</i>		0,20
<b>Lehiaketa edo liga edo nazionaletan parte hartzea</b> <i>Participación en competiciones o ligas nacionales</i>		300 arte
<b>Udalerrian errotuta daudelako interes bereziko modalitateetako kirol-eskolak</b> <i>Escuelas deportivas de modalidades de interés especial por su arraigo en el municipio</i>		300 arte
<b>Kirolak edo interes bereziko taldeak sustatzea</b> <i>Promoción de deportes o equipos de interés especial</i>		400 arte
<b>Gastos por uso de instalaciones deportivas</b> <i>Kirol instalazioak erabiltzeagatik gastuak</i>		500 arte
<b>Urteurreneko ospakizunak</b> <i>Celebración aniversarios</i>		300 arte
<b>Kirol entrenatzaileen titulazioak</b> <i>Titulaciones entrenadores deportivos</i>	Oinarrizko entrenatzailea Erdi mailako entrenatzailea Goi mailako entrenatzailea	2 4 6
<b>Entrenatzaileen formazioa</b> <i>Formacion entrenadores</i>	Entrenatzaile ikastaroetako asis. Asistencia entrenadores cursos	1
<b>Jarduera bereziak antolaketa</b> <i>Organización actividades especiales</i>	I maila /Nivel I II maila /Nivel II III maila/ Nivel III IV maila / Nivel IV	0-25 arte 25-50 arte 50-100 arte 100-200 arte
<b>Eskola Kirolari Laguntza teknikoa ematea</b> <i>Asistencia técnica deporte escolar</i>	Laguntza teknikoa Asistencia técnica	10 arte
<b>Euskararen sustapenaren aldeko jarrera</b> <i>Actitud favorable de fomento del uso del euskera</i>	Betetze maila <i>Nivel cumplimiento</i>	%0-5 gehiago 0-5% mas
<b>Genero berdintasunaren sustapenaren aldeko jarrera</b> <i>Actitud favorable de fomento de la igualdad de género</i>	Betetze maila <i>Nivel cumplimiento</i>	%0-5 gehiago 0-5% mas



EGINBIDEA: Oinarri hauek Udaltzarak 2024ko otsailaren 28an onartu zituen.

Urretxun, 2024ko martxoaren 13an  
Idazkariak